

OLENTZARO 2019

Arratsaldeko zazpi eta erdiak inguru heldu zen ospitalera. Korridoretik zihoanean, Gabonetarako apaingarriak kokatzen hasi zirela ikusi zuen. Lan berri horrek bertako batzuen arreta hartzen zuen, Gabonetarako argiek eta girlandek ospitalean zegoen giroari beste itxura ematen zioten eta. Gainera, hori ikusteak poza eragiten zien ospitaletik kanpoko bizitzaz irrikatzen zutenei. Egongelara iritsi zenean, Rosa ikusi zuen. Egongelako beiratearen hurbil zegoen, gurgil-aulkian eserita. Denbora-pasa koaderno batzuk hanken gainean eta begirada guztiz galduta. Eskuineko eskuan irratia zeukan, leku guztietara eramaten zuen irratia txikitxo, "aingeru guardakoa" izango balitz bezala. Hain altua zen irratia bolumena non guztiek entzun zezaketen Rosak izan ezik. Ainhoa ikusi zuenean, irribarrea marraztu zitzaion aurpegian. Orduan, Ainhoak musukatu zuen.

Afaltzeko zorian zegoela, Ainhoak bultzatu zuen gurgil-aulkia hamabost zenbakidun gelara. Hor, hotel batean moduan zegoen Rosa, ez zuelako inorekin gunerik banandu behar logelan. Gau hartan, oilaskoa saltsan sukaldatu zuten, purea eta salda lagunduta. Beti egoten zen flana edo jogurta amaitzeko. Nerabe baten moduko jateko gogoa izaten zuen Rosak. Ainhoak afaria ematen bukatu zuenean, osasun-langileek ohera sartzen lagundu zioten Rosari. Orduan, hurrengo egunera arte agurtu eta musu bat eman zion. Ainhoak musukatzen zuen bakoitzean, Rosa konturatzen zen bere errespetuaz eta samurtasunaz.

Zirimiria hasia zen Ainhoak sarrera nagusia pasatu zuenean. Egun horretan berandu baino beranduago iritsi zen. Zaila egiten zen ospitalaren inguruetan aparkalekua aurkitzea. Korridorerako bidea hartu zuen eta apaingarriz josita egoteak atentzioa eman zion. Ospitaleko ingurunea Olentzeroren aurretiko etorrera modukoa zen. Ohi bezala, egongelara iritsi orduko, aurpegia bihurtu zuen Rosa ikusteko. Beste batzuetan ez bezala, gurgil-aulkia korridorera begira zegoen Ainhoaren zain balego bezala. Hurbildu

bezain laster, Ainhoaren eskua hartu zuen Rosak, irribarre egin barik. Minutu batzuk eman ostean, gaixotasuna armiarma-sarean moduan zabaltzen ari zelako susmoa izan zuen Ainhoak. Rosa geldiezin eta haserre zegoen. Oldarkor ere zaintzen zutenekin. Gaixotasunaren aurkako pultsua egingo balu bezalako sentsatzioa zen, eta pultsu horrek izugarri nekatzen zuen. Ainhoa zegoenean, antzineko gertaerak kontatu ohi zizkion, Olentzero etortzeko egun gutxi falta zirenekoak, besteak beste. Zehatz-mehatz, bost urte zituenekoak. Gurasoek goiz oheratzen zuten Rosa, Olentzerori ongi etorria emateko etxea prestatu nahi baitzuten. Beti uzten zituzten janaria eta edariak. Rosaren lana, ordea, zapatak garbitzean eta leihoaren ondoan uztean baino ez zetzan. Urtez urte errepikatzen zen erritu hori, eta jai handi bat hasteko zorian zegoela esan nahi zuen horrek. Nostalgiaz gogoratzen zuen Rosak Olentzero etorri baino aurreko gauean txarto baino okerrago egiten zuela lo. Izan ere, esnaturik egon ohi zen; goizean, gurasoak bere bila zihoazenean, oraindik begirik bildu gabe. Orduan, ziztu bizian altxatzen zen opariak ikusteko asmoz. Arratsalde horretan, ospitalean, Rosaren istorioak ez zirela inoiz errepikatuko ohartu zen Ainhoa. Rosaren falta sentitzen hasi zen. Boligrafo bat hartu zuen eta idazteari ekin zion poltsatik ateratako paper zati batean. Amaitu bezain pronto, logelan zegoen ohe-mahaiaren barruan gorde zuen. Musu bat eman zion Rosari eta logelatik irten zen.

Rosarengan pentsatzeari utzi ezinik ospitaletik irten zen. Hark erakutsitako minak gogorarazten zizkion Ainhoari banderillero baten estokeak. Kaleratu zenean, tenperatura bat-bateko jaitsiera egon zela iruditu zitzaion.

Egun batzuk geroago, ospitaleko korridorean zebilen Ainhoa. Egongelara heldu zenean, Rosa ez ikusteak ustekabean harrapatu zuen. Logelarako bidea hartu zuen. Arraro egin zitzaion logelako atea zabalik ikustea. Osasun-langileak barruan egon ezean atea zabalik egon ohi zen. Erdi irekita zegoenez, bultzatu zuen Ainhoak. Barruko iluntasunaren

beldur izan zen hasieran. Aurrera egin zuen lur ezegonkorra zapalduko balu bezala eta ezezagunak ziren senitarte batzuk ikusi zituen. Giroa ezeroso zen, tentsio-egoera lasaia nabaritu zuen. Haien artean ez zioten elkarri ere begiratzen. Nolanahi ere, Rosaren lagun mintzat aurkeztu zuen burua. Rosa lotan zegoen sedazioa zela eta. Arnasketa azkarra, orekarik gabekoa.

Ainhoa lagunarengana hurbildu zen, masailak laztantzeko. Segundo batzuetako musu luzea eman zion. Burua altxatu eta Rosaren esku hezurtsuen artean tolestutako orri bat ikusi zuen. Hain zen luzea elkarrekin partekatutako denbora, ezen horri horren edukia jakiteko piztu zitzaion. Hartu eta destolestu bezain laster, ezagutu zuen idazkera. Ainhoak berak Olentzerori idatziriko gutun hartan eskatu zizkionak betetzen ari ziren: mina desagertzea eta Rosa lasai deskantsatzea. Negar tantak lehortu zituen. Zerbait esateko keinua egin zuen, baina bitan pentsatu ondoren isilik egon zen.

Ospitaleko ate nagusitik irten zenean zera pentsatu zuen:

“Ze pena galdu izana, Ze poza ezagutu izana”